



DONOSTIA  
SAN SEBASTIÁN



[www.donostiakultura.eus](http://www.donostiakultura.eus)

## AMAIA ZUBIRIAK JASOKO DU 2021eko ADARRA SARIA

Jose Joaquin Forcada *Forki* kazetariak, Auria Etxeandia EGOKo komunikazio arduradunak eta Esther Fernandino Donostia Kulturako Musika ataleko teknikariak osatutako Aholku Batzordeak aho batez erabaki du aurtengo Adarra Saria Amaia Zubiria kantariari ematea.

Amaia Zubiria euskal musikaren ordezkari garrantzitsuenetako da. Joan den mendeko 70eko hamarkadan hasi eta gaur egunera arte luzatzen den ibilbidean, aparteko gaitasuna duen interprete eta musikagilea dela utzi du agerian eta funtsezko eragina izan du haren ondorengo euskal musikarien belaunaldietan.

Kantu tradizionalen gaurkotzaile gisa egindako lanak eta euskal zinemaren puntako soinu-bandetan izandako lankidetzak haren lan artistikoaren garrantziaren neurria ematen digute.

Halaxe adierazi digu Amaia Zubiriak Adarra Saria jasotzeak eragin dionaz: "Bizitza asko izan ditut. Eta horietako bakoitza zirkulu bat bezala ikusten dut. Aurrekoa itxi arte ez nintzateke erabat sartuko hurrengoan. Balego. Gainera uztai bat ixterakoan beti xirrikitu bat uzten saiatzen naiz, batek daki. Adarra Saria horrela bizi dut, musikarekiko dudan zirkulu honen amaiera bezala. Hurrengoaren hasiera, agian."

Amaia Zubiriak ekainaren 21ean, Musikaren Europako Egunean, arratsaldeko 19:00etan, Victoria Eugenia Antzokiko oholtzan jasoko du Marijose Rekalde eskultoreak egindako sariaren garaikurra, Eneko Goia Donostiako alkatearen eskutik, eta segidan kontzertua eskainiko du, musikari talde zabalaz inguratuta: Pascal Gaigne, Karlos Gimenez, Angel Unzu, Iñaki Salvador, Aitor Furundarena, Ritxi Salaberria, Gonzalo Tejada, Luis Camino, Manu Gaigne... Hainbat kolaborazio ere izango dira: Maider Ansa, Jaione Olazabal, Matixa Otero, Francisco Herrero, Ainara Ortega, bere seme Edorta Amurua Zubiria eta Jon Maia bertsolaria tarteko.

Kontzerturako sarrerak gaur jarri dira salgai, 20 euroan, Victoria Eugenia Antzokiko eta Antzoki Zaharreko leihatiletan edota [www.donostiakultura.eus/sarrerak](http://www.donostiakultura.eus/sarrerak) webgunean. Lau sarrera erosi ahal izango dira gehienez pertsonako.

Donostiako Udalak eta Donostia Kulturak 2014an sortu zuen Adarra Saria, euskal musikaren arloan garrantzi edo eragin bereziko ibilbidea egin duen edo egiten ari den artista bati, urtero, omen egiteko. Orain arte Mikel Laboak, Ruper Ordorikak, Benito Lertxundik, Fermin Muguruzak, Anarik, Berri Txarrak taldeak eta Kepa Junkerak jaso dute Adarra Saria.

### KOMUNIKAZIOA COMUNICACIÓN

Erregina Erregeordea, 8 – 20003 Donostia / San Sebastián  
T. (0034) 943 481 151 E. [kultura\\_komunikazioa@donostia.eus](mailto:kultura_komunikazioa@donostia.eus)  
[www.donostiakultura.eus](http://www.donostiakultura.eus)



## AMAIA ZUBIRIA

(Zubieta, 1947ko irailaren 11)

Euskal Abestigintza Berriak emandako emakumezko abeslaririk garrantzitsuena da Amaia Zubiria. Haizea talde aitzindariko kantariak, 40 urte baino gehiagoko ibilbidean, bakarkako lanak eta beste musikariekin egitasmoak tartekatu ditu (15 disko). Kantaera dotore eta sakonaren jabe izanik, ez da harritzeko haren ahotsa hainbat filmetan eta beste hainbat euskal artisten diskoean entzutea.

### Biografia

Donostiako eta Usurbilgo Zubieta auzoan (Gipuzkoa) jaio zen, 1947an. Aita sekula plazarik egin ez zuen ahots bikaineko bertsolaria eta ama kantuzale iaioa izanik, txikitatik jaso zuen kanturako zaletasuna. Kantatzea etxeen eta lagunartean gorde beharreko kontua zelakoan, ezkutuan hasi zen, 16 urterekin, kantari berrientzat garai hartan zeuden txapelketetan parte hartzen.

Txapelketa batean Benito Lertxundi entzun zuen, kantuan. Lehenengo derrigorrezkoa zen gaztelerazko abestia kantatu zuen eta ondoren euskarazko abesti bat guitarraz lagunduta. Amaiari kontzientzia astindu zion horrek. Eta Benito Lertxundik parte hartzen zuen bakoitzean bera ikustera joaten zen.

Halako batean *La voz de España* egunkariko argazki batean agertu, eta horrela jabetu ziren etxeen Amaia gazteak kantaria izan nahi zuela. Sekulako iskanbila sortu zuen deskubrimenduak, gurasoek ez baitzuten nahi alabak plazan kantatzea.

Txomin Artola ezagutu zuen 70eko hamarkadaren erdialdean; biek maite zuten Walt Whitman poeta estatubatuarra, eta Artolak proposatu zion Haizea taldea osatzea eta kantari gisa jardutea. Haizeak ezagutarazi zuen Amaia Zubiriaren ahots garden eta sentikorra. Ordura arte Hego Euskal Herrian entzun ez zen emakume kantaera zen hora, eta entzuleak txunditu egin zituen. Esan daiteke, zalantzarak gabe, Amaia Zubiriaren ahotsa izan zela Haizearen arrakastaren gakoetako bat.

Haizearekin zuzeneko hamaika emanaldi eta bi disko grabatu ondoren –*Haizea* (Herri Gogoa, 1976) eta *Hontz gaua* (Xoxoa, 1979)–, Frantziara eta ondoren Iparraldera jo zuen, eta hainbat jazz musikarirekin hasi zen lanean. Horrela ezagutu zuen Pascal Gaigne gitarrista eta musikagilea.

Harekin lanean hasi zen 1983ko udan, eta bikote artistikoa osatu zuten hainbat urtez. Tartean, *Etxahun eta Etxahun* diskoan (IZ, 1980) parte hartu zuen, Imanol, Niko Etxart eta Beñat Axiarirekin batera.

### KOMUNIKAZIOA COMUNICACIÓN

Erregina Erregeordea, 8 – 20003 Donostia / San Sebastián  
T. (0034) 943 481 151 E. [kultura\\_komunikazioa@donostia.eus](mailto:kultura_komunikazioa@donostia.eus)  
[www.donostiaikultura.eus](http://www.donostiaikultura.eus)



Zubiria-Gaigne bikoteak egindako lanak bi zutabe ditu. Alde batetik, herri musikaren inguruan kaleratutako diskoak, eta, bestetik, zinemarako egindako musika.

*Egun argi hartan* (Elkar, 1985) izena hartu zuen bikotearen lehen diskoak. Herri kantak, gitarra jostagarriak eta ahots sakonak: hori izan daiteke diskoaren laburpenik egokiena. Hurrengo urtean *Kolorez eta ametsez* (Elkar, 1986) kaleratu zuten. Aurrekoaren akustikotasun biluzi bera jorratzen zuen.

Zinemari dagokionez, Pascal Gaigne ezagutu baino lehenagokoa da Amaia Zubiriak egindako lehen lana, *La fuga de Segovia* (Angel Amigo, 1981) filmerako musika Xabier Lasai Haizeako gitarristarekin egin baitzuen. Gero, *La muerte de Mikel* (Imanol Uribe, 1983) filman parte hartu zuen. Angel Illaramendik egin zuen musika, eta Amaia Zubiriak abesti bat sortu eta kantatu zuen: *Tango*.

Dena dela, Gaignerekin batera egin ditu film lanik esanguratsuenak: *Zergatik Panpox* (Xabier Elorriaga, 1985), *Ander eta Yul* (Ana Diez, 1988), *Santa Cruz, el cura guerrillero* (Jose Maria Tuduri, 1990), *Loraldia, el templo de las flores* (Oscar Aizpeolea 1990), *Como tú quieras* (Joseba Salegi, 1992). Amaia Zubiriak eta Pascal Gaignek zinemarako egindako lan horren guztiaren emaitza da *Hamar urte zineman* bilduma diskoa (Angel Amigo, 1990), bikote gisara kaleratutako azkena.

Geroztik elkarren arteko harreman artistikoa ez da hautsi, eta Pascal Gaignek Amaia Zubiriaren diskoetako kolaboratzaile ia finkoa izaten jarraitu du.

Zenbait filmetan ere abestu du, Goya saria lortu zuen *Karramarro Uhartearen* (Xabi Basterretxea, Joxan Muñoz, 2001) filman, esate baterako, edo *Yoyes pelikulan* (Helena Taberna, 2000).

Modu naturalean egin zuten berriro topo Artolak eta Zubiriak, gero eta elkarlan mamitsuagoa osatzuz. Horren emaitza da hiru diskoz osatutako *Folk-Lore* sorta bilduma. Lehenak, *Folk-lore-sorta 1* (Elkar, 1991), oihartzun handia lortu zuen komunikabide eta zaleen artean. Hamaika emanaldi egin zituzten Euskal Herri osoan, eta 1993an desegin zuten bikotea beste bi disko kaleratu ondoren: *Folk-lore-sorta 2* (Elkar, 1992) eta *Folk-lore-sorta 3* (Elkar, 1993).

Gero, bakarkako ibilbideari heldu zion berriro Amaia Zubiriak, eta sei disko kaleratu ditu geroztik. *Amonaren mengantza* (IZ, 1995) da lehena eta kantariaren azken urteetako ildoaren adierazle da. Kantu tradisionalak eta jazz musikatik datorren esperimentazioa uztartuta, batez ere kantatzeko moduan eta ahots jokoetan adierazten dena. Gainera, izenburuak ongi adierazten du diskoaren intentzio "feminista", Zubiriaren jardunaren beste ezaugarrietako bat.



DONOSTIA  
SAN SEBASTIÁN



donostia  
kultura

[www.donostiakultura.eus](http://www.donostiakultura.eus)

Inauterietako kantuekin osatu zuen *Hou Pittu Hou* diskoa (Elkar, 1998), eta Angel Unzu aritu zen ekoizle lanetan. Urte berean kaleratu zuen *Mami xuri* (IZ, 1998) –Argentinako Maiatzeko Amen omenez–eta handik lau urtera, berriz, *Haatik* (Elkar, 2002). Bertan hainbat kantu zahar berreskuratu eta zazpi kantu berri eskaini zizkigun Pascal Gaignek ekoitzi eta moldatutako diskoan. Bere azkenengotako lana, *Nabil* (Elkar, 2008), hainbat kantu herrikoi ezagunen bilduma da: *Maitia nun zira*, *Prima ejerra*, *Itsasoa laino dago...*

Zuzenekoak ematen jarraitzen du, eta horietako askotan Edorta Amurua semea eduki du laguntzaile gitarrarekin.

“Musika naiz. Musikak narama” (Amaia Zubiria)

## Diskografia Discografía

- 1977. Haizea: *Haizea* (HG)
- 1979. Haizea: *Hontz gaua* ((Xoxoa))
- 1980. Amaia Zubiria, Imanol, Niko Etxart, Beñat Axiari: *Etxahun eta Etxahun* (IZ)
- 1985. Amaia Zubiria eta Pascal Gaigne: *Egun argi hartan* (Elkar)
- 1986. Amaia Zubiria eta Pascal Gaigne: *Kolorez eta ametsez* (Elkar)
- 1996. Amaia Zubiria eta Pascal Gaigne: *Hamar urte zineman* (Angel Amigo)
- 1991. Amaia Zubiria ea Txomin Artola: *Folk lore sorta I* (Elkar)
- 1992. Amaia Zubiria eta Txomin Artola: *Folk lore sorta II* (Elkar)
- 1993. Amaia Zubiria eta Txomin Artola: *Folk lore sorta III* (Elkar)
- 1995. Amaia Zubiria: *Amonaren mengantza* (IZ)
- 1998. Amaia Zubiria: *Jo pitxu Jo* (Elkar)
- 1998. Amaia Zubiria: *Mami xuri* (Elkar)
- 2002. Amaia Zubiria: *Haatik* (Elkar)
- 2008. Amaia Zubiria: *Nabil* (Elkar)
- 2010. Amaia Zubiria: *Amona Mantangorri* (Brian Records)

## KOMUNIKAZIOA COMUNICACIÓN

Erregina Erregeordea, 8 – 20003 Donostia / San Sebastián  
T. (0034) 943 481 151 E. [kultura\\_komunikazioa@donostia.eus](mailto:kultura_komunikazioa@donostia.eus)  
[www.donostiakultura.eus](http://www.donostiakultura.eus)



DONOSTIA  
SAN SEBASTIÁN



donostia  
kultura

[www.donostikultura.eus](http://www.donostikultura.eus)

## AMAIA ZUBIRIA, ADARRA SARIA 2021

La cantante Amaia Zubiria será la artista que recibirá el Adarra Saria de este año a propuesta del Comité Asesor formado por el periodista José Joaquín *Forcada Forki*, la responsable de comunicación de la EGO Auria Etxeandia y Esther Fernandino, técnica de Música de Donostia Kultura.

Amaia Zubiria es una de las más destacadas representantes de la Euskal Musika. Con una carrera que se inició en los años 70 del pasado siglo y que se prolonga hasta la actualidad, ha mantenido una vigencia constante en su capacidad como intérprete y como compositora; ha sido y es una influencia primordial en las sucesivas generaciones de músicos y músicas vascas.

Su labor como actualizadora de temas tradicionales y su colaboración con el cine vasco en señaladas bandas sonoras, dan una dimensión aún mayor a su figura y a la importancia de su labor artística.

Al recibir la noticia, Amaia Zubiria ha declarado: "He tenido muchas vidas. Y veo cada uno de ellas como un círculo. Hasta no cerrar el anterior no entro en el siguiente. Si es que lo hubiera. Además, cuando cierro un aro siempre intento dejar una rendija, quién sabe. El Premio Adarra lo vivo así, como el final de este círculo que tengo con la música. Y quizá sea el comienzo del próximo".

Amaia Zubiria recibirá el premio, una escultura creada por Marijose Rekalde, el día 21 de junio, a las 19:00 horas, en el escenario del Teatro Victoria Eugenia, de la mano de Eneko Goia, alcalde de Donostia/San Sebastián, y a continuación ofrecerá un concierto acompañada de un numeroso grupo de músicos: Pascal Gaigne, Karlos Gimenez, Angel Unzu, Iñaki Salvador, Aitor Furundarena, Ritxi Salaberria, Gonzalo Tejada, Luis Camino, Manu Gaigne.. Contará, asimismo, con la colaboración de artistas como Maider Ansa, Jaione Olazabal, Matixa Otero, Francisco Herrero o Ainara Ortega, su hijo Edorta Amurua Zubiria a la guitarra y el bertsolari Jon Maia, entre otros.

Las entradas para el concierto ya están a la venta al precio de 20 euros en las taquillas del Teatro Victoria Eugenia y Teatro Principal y en la web [www.donostikultura.eus/sarrerak](http://www.donostikultura.eus/sarrerak). Se podrá adquirir un máximo de cuatro entradas por persona.

El Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián y Donostia Kultura crearon este premio en 2014 con el objetivo de reconocer con carácter anual la labor de un o una artista que, en el terreno de la euskal musika, haya desarrollado o esté desarrollando una carrera de especial relevancia e influencia. Hasta la

### KOMUNIKAZIOA COMUNICACIÓN

Erregina Erregeordea, 8 – 20003 Donostia / San Sebastián  
T. (0034) 943 481 151 E. [kultura\\_komunikazioa@donostia.eus](mailto:kultura_komunikazioa@donostia.eus)  
[www.donostikultura.eus](http://www.donostikultura.eus)



DONOSTIA  
SAN SEBASTIÁN



donostia  
kultura

[www.donostiakultura.eus](http://www.donostiakultura.eus)

fecha han recibido el premio Mikel Laboa, Ruper Ordorika, Benito Lertxundi, Fermin Muguruza, Anari, Berri Txarrak y Kepa Junkera.

## AMAIA ZUBIRIA

(Zubieta, 11 de abril de 1947)

Amaia Zubiria es la cantante femenina más importante de la historia de la Nueva Canción Vasca. La cantante del grupo pionero Haizea, en su trayectoria de más de 40 años, ha alternado trabajos en solitario con proyectos con otros músicos (15 discos). Poseedora de una elegante y profunda manera de cantar, no es de extrañar que su voz haya sido requerida en varias películas y en discos de otros artistas vascos.

### Biografía

Nace en el barrio de Zubieta de San Sebastián y Usurbil (Gipuzkoa) en 1947. Zubiria se aficionó a la canción desde pequeña. Su padre fue un bertsolari de excelente voz que nunca actuó en plazas y su madre una hábil cantante. Con la idea de que cantar era algo que había que guardar en casa y entre amigos y amigas, empezó a participar clandestinamente, a los 16 años, en los campeonatos que había por entonces para nuevas voces.

En uno de esos concursos escuchó cantar a Benito Lertxundi un primer tema obligatorio en castellano y una segunda canción en euskera a la guitarra. Aquello sacudió la conciencia de Amaia y siempre que participaba Benito Lertxundi iba a verle.

Su familia supo que la joven Amaia quería ser cantante por una foto que se publicó en *La voz de España*. El descubrimiento generó un enorme escándalo, ya que sus padres no querían que su hija cantara en público.

A mediados de la década de los 70 conoció a Txomin Artola; ambos amaban al poeta estadounidense Walt Whitman, y Artola le propuso formar el grupo Haizea y que ella fuera la cantante. El grupo Haizea dio a conocer la transparente y sensible voz de Amaia Zubiria. Aquello era un canto de mujer que hasta entonces no se había escuchado en Hego Euskal Herria y que impresionó a la audiencia. Se puede decir, sin duda, que la voz de Amaia Zubiria fue una de las claves del éxito de Haizea.

### KOMUNIKAZIOA COMUNICACIÓN

Erregina Erregeordea, 8 – 20003 Donostia / San Sebastián  
T. (0034) 943 481 151 E. [kultura\\_komunikazioa@donostia.eus](mailto:kultura_komunikazioa@donostia.eus)  
[www.donostiakultura.eus](http://www.donostiakultura.eus)



DONOSTIA  
SAN SEBASTIÁN



donostia  
kultura

[www.donostia-kultura.eus](http://www.donostia-kultura.eus)

Tras numerosas actuaciones en directo con Haizea y dos discos grabados –*Haizea* (Herri Gogoa, 1976) y *Hontz gaua* (Xoxoa, 1979)–, se trasladó a Francia y después a Iparralde, y comenzó a trabajar con varios músicos de jazz. Así conoció al guitarrista y compositor Pascal Gaigne.

Empezó a trabajar con él en el verano de 1983 y formaron pareja artística durante varios años. Participó en el disco *Etxahun eta Etxahun* (IZ, 1980), junto a Imanol, Niko Etxart y Beñat Axiari.

El trabajo realizado por el dúo Zubiria-Gaigne tiene dos pilares. Por un lado, los discos publicados en torno a la música popular y, por otro, la música creada para el cine.

*Egun argi hartan* (Elkar, 1985) es su primer disco conjunto. Canciones populares, guitarras juguetonas y voces profundas: ese puede ser el resumen más adecuado del disco. Al año siguiente lanzaron *Kolorez eta ametsez* (Elkar, 1986) que profundizaba en la misma acústicidad desnuda que el anterior.

En cuanto al cine, el primer trabajo de Amaia Zubiria es anterior a su encuentro con Pascal Gaigne, ya que la música para *La fuga de Segovia* (Ángel Amigo, 1981) la hizo con el guitarrista de Haizea Xabier Lasa. Luego participó en *La muerte de Mikel* (Imanol Uribe, 1983). Ángel Illarramendi hizo la música y Amaia Zubiria creó y cantó una canción: *Tango*.

Sin embargo, sus trabajos para el cine más significativos los ha creado junto a Gaigne: *Zergatik Panpox* (Xabier Elorriaga, 1985), *Ander eta Yul* (Ana Diez, 1988), *Santa Cruz, el cura guerrillero* (Jose María Tuduri, 1990), *Loraldia, el templo de las flores* (Oscar Aizpeolea 1990), *Como tú quieras* (Joseba Salegi, 1992).

Fruto de todo este trabajo de Amaia Zubiria y Pascal Gaigne para el cine es el disco recopilatorio *Hamar urte zineman* (Ángel Amigo, 1990), último disco publicado como dúo.

Desde entonces la relación artística entre ellos no se ha roto y Pascal Gaigne ha seguido siendo un colaborador casi fijo de los discos de Amaia Zubiria.

Zubiria también ha cantado en películas como *Karramarro Uharte* (Xabi Basterretxea, Joxan Muñoz, 2001) o *Yoyes* (Helena Taberna, 2000).

Artola y Zubiria se reencontraron de forma natural, formando una colaboración cada vez más jugosa. Fruto de ello es la colección *Folk-Lore sorta*, compuesta por tres discos. El primero, *Folk-lore-sorta 1* (Elkar, 1991), obtuvo una gran repercusión entre medios de comunicación y público aficionado. La

#### KOMUNIKAZIOA COMUNICACIÓN

Erregina Erregeordea, 8 – 20003 Donostia / San Sebastián  
T. (0034) 943 481 151 E. [kultura\\_komunikazioa@donostia.eus](mailto:kultura_komunikazioa@donostia.eus)  
[www.donostia-kultura.eus](http://www.donostia-kultura.eus)



DONOSTIA  
SAN SEBASTIÁN



donostia  
kultura

[www.donostia-kultura.eus](http://www.donostia-kultura.eus)

pareja se disolvió en 1993 tras publicar otros dos discos: *Folk-lore-sorta 2* (Elkar, 1992) y *Folk-lore-sorta 3* (Elkar, 1993).

Después, Amaia Zubiria retomó su carrera en solitario y desde entonces ha publicado seis discos. El primero es *Amonaren mengantza* (IZ, 1995), y es un indicador de la línea que ha seguido la cantante en los últimos años. Ha combinando canciones tradicionales con la experimentación procedente de la música jazz, que se expresa sobre todo en la forma de cantar y en los juegos vocales. Además, el título indica bien la intención "feminista" del disco, otra de las características de la trayectoria de Zubiria.

El disco *Hou Pittu Hou* (Elkar, 1998) fue producido por Ángel Unzu. Ese mismo año lanzó *Mami xuri* (IZ, 1998), en homenaje a las Madres de Mayo de Argentina, y cuatro años después, *Haatik* (Elkar, 2002). Allí recuperó varias canciones antiguas y nos ofreció siete temas nuevos en este disco producido y arreglado por Pascal Gaigne. Uno de sus ultimos trabajos, *Nabil* (Elkar, 2008), es una recopilación de canciones populares conocidas como *Maitia nun zira*, *Prima ejerra*, *Itsasoalaino dago...*

Amaia Zubiria sigue ofreciendo conciertos en directo, y en muchos de ellos actúa acompañada de su hijo Edorta Amurua a la guitarra.

"Soy música. Me lleva la música" (Amaia Zubiria)

#### KOMUNIKAZIOA COMUNICACIÓN

Erregina Erregeordea, 8 – 20003 Donostia / San Sebastián  
T. (0034) 943 481 151 E. [kultura\\_komunikazioa@donostia.eus](mailto:kultura_komunikazioa@donostia.eus)  
[www.donostia-kultura.eus](http://www.donostia-kultura.eus)